



TAUN TAUN Teatroak Helduentzako Nazioarteko Txotxongiloen XVII. Mostra aurkeztu du. Ekimena bienala da, eta 1991n egin zen lehenengo aldiz. Estatuko arte bizien programazioan hutsune interesgarri bat bete nahi izan du. Izan ere, Bergarakoa ikuslego heldu batentzat egiten den lehenengo antzerki mostra da.

Nabarmena da jaialdiaren jarraitutasuna. Handia ez izan arren, bere ibilbidean zehar munduko herrialde ezberdinetatik iritsitako 190 artista baino gehiagok bisitatu dute.

Aurtengoan, aurreko ediziotan egin den legez, ikuskizun ezberdinekin espazio ezberdinetan gozatzeko aukera izango dute herritar eta bisitariak.

## **OSTIRALA, urriak4**

### **WIRELESS – Filma (20 min)**

**Zero en conducta (México-Catalunya)**

**19:00- Aroztegi Aretoa**

Eugenio, aspaldiko titiriteroa, bakarrik bizi da, gurpildun aulki bati lotua. Ramon, erizain gaztea, bere laguntzaile fidela da. Batzutan Ramon ez dago berarekin. Etorkizuna baino iragana duen norbaiten lagun bakarra oroimena da. Eta oroimena hain presente dago Eugenioren bizitzan, oroimenak berak Eugenio txotxongilo bilakatuko duela.

WIRELESS filmak oroimena omentzen du, maitasuna, atxikimendurik eza eta, ondorioz, maitasun askea.

Teaser: <https://www.youtube.com/watch?v=vy4RIIPr83Y>

## **ORIGEN**

**Borja Sand Art (Catalunya)**

**20:00- Seminarixoa**

Publiko guztientzat bidaia poetikoa.

Artea, hondarra, txotxongiloak, itzal-antzerkia, argiak eta musika.

Origen izeneko izaki bat sortu zen, Big Bang-arekin batera.

Origenek Unibertsoaren sorkuntza ikusi zuen. Lurrarena. Dinosaurioen erregealdia ezagutu zuen, baita haien iraungipena ere.

Gizakiaren bilakaera behatzeko pribilegioa izan zuen, lehen hominidoetatik gaur egungo pertsonetaraino

Espiritualtasuna esperimentatu zuen, erlijioei eta giza sormenari erreparatu zien, baita gizabanakoen arteko gatazkak eragiten dituzten erronka teknologikoei ere.

Gizateriaren eta Kosmosaren harmonia eta batasuna bilatu zituen.

Bere historia Unibertsoarena berarena da, mirariz eta erronkaz beteriko istorioa. Existenziaren potentzial infinituaren historia.

Teaser: [https://www.youtube.com/channel/UCYa\\_Xrk5vAfyLw0BAWzu3HQ](https://www.youtube.com/channel/UCYa_Xrk5vAfyLw0BAWzu3HQ)

## **IGARO**

**Maren Basterretxea (Euskal Herria)**

**22:30- Gaztetxea**

Zuzenean manipulaturako txotxongiloak eta objektuak.

Ez dago erlojua gelditzerik, oraina geroraterik.

Iraganean korapilatu gineneteik, minean, zaurian, ilusio zapuztuan bizi da bizia. Sokak moztu eta agurtu beharra dugu egunen batean aske dantza gaitzen.

Emakume batek kutxa handi bati tiraka lapurtzen du espazio hutsa. Zerrek du hainbesteko pisua? Noizbait zerbaiten parte izan ziren objektuek, gaur ezerezean utziak daudenek.

Bada kutxa berriro zabaldu eta amets hautsien dantza ospatzeko garaia, zamak baztertu eta arrastaka daramagun kutxak arnas eman diezagun uzteko unea.

Teaser: <https://www.youtube.com/watch?v=SzEBjwuKceM&t=1s>

## **LARUNBATA, urriak 5**

**SIE7m**

**Ymedio Teatro (Andalucía)**

**Larunbata 5: 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara – Munibe Plaza**

**Igandea 6: 12:00etatik 14:00etara – Munibe Plaza**

15 minutuko emanaldiak. Dohanik, baina gonbidapena bertan jasotzea beharrezkoa da.

Publiko guztiei zuzendutako proposamen berritzailea. Kale antzerkia, aretoko antzerkia eta txotxongiloak uztartzen ditu. Ikuskizun bat baino gehiago ikuskizun bakar batean.

Gurpil gainean, eta zazpi metro koadro eskasetan, 15 ikuslek 15 minutuko emanaldi laburrak gozatuko dituzte.

Antzerki berezia, zalantzarik gabe. Espazio eszeniko txikia, eta oso zaindua, amets handienak gortzeko gai dena.

Eguneroko objektuen manipulazioa abiapuntua duten sketch barregarriak. Istorio hunkigarriak. Magia.

Teaser: <https://www.youtube.com/watch?v=riPLUVEXA3E&t=74s>

**FLEXUS**

**MG Producciones**

**12:00 & 18:00. Kalean zehar.**

Ezusteko bi izaki bizidunek oinezkoak harrituko dituzte beren ikusizko jolas dibertigarriekin. Flexus-ak aurrez pentsatutako gidoirik gabe arituko dira publikoarekin, inprobisazioan erabat oinarritutako ikuskizun batean. Adin guztientzat egokia. Guztiek galdetzen diote beren buruei: Nork kontrolatzen ditu izaki hauek? Barruan pertsona bat dago? Urrutiko kontrol bidez mugitzen dira?... Ezin dizuegu kontatu. Zatozte ikustera!

Teaser:

<https://mgproducciones.com/index.php?page=espectaculos&name=FLEXUS&link=1&source=mgproducciones&tkn=36>

## **UN RATITO**

**María Urcelay (Euskal Herria)**

**12:30 & 13:30 Aroztegi Aretoa**

Proposamen eszeniko laburra. Monologo barregarria, delirantea eta errebindikatzaila. Pertsonaia misteriotsu batek gorputzaren gaineko exijentzien pisua eramateko gakoak azalduko ditu, inongo damurik gabe.

“Pertsonak baino burrunba den jendea dago. Bide onetik eraman nahi gaituzte. Begiratzen zaituzte, ez dute ezer esaten eta hasperen egiten dute. Zerbait egin beharko litzateke beraiekin. Baina hobe da gauzak planifikatzea. Ez dut jateko ezer ekarri. Zer egiten duzue zuek maitatuak izateko?”.

## **BUFA & SONS**

**Xavi Lozano (Catalunya)**

**19:00- San Martin Plaza**

Bere unibertso pertsonala eta objektuekin erlazionatzeko duen modu berezia erakutsiko digun pertsonaia maitagari batekin topaketa. Hitzaldi-kontzertu formatuan, artistak publikoarekin solasaldi burutsu bat sortuko du. Ironiaz jositako hitz eta jokoak asmatuko ditu, umorea bidelagun izanik.

Kontzertu bitxi bat, musika-konposizio bikainek gidatutako bidaia komiko eta didaktikoa. Protagonistak gure egunerokotasunean ikusi bai baina entzuten ez ditugun objektuak dira.

Musika nahi edo erabakitzen dugun tokian aurkitzen dela erakutsiko digu ikuskizunak.

Teaser:

<https://www.youtube.com/watch?si=cXacxI3Lf7aqtuJE&v=4WDtUuIB7b0&feature=youtu.be>

## **FILAR**

**Antonella D'Ascenzi (Italia)**

**20:00 - Seminarixoa**

Dantza garaikidea eta poesia bisuala. Gorputz eta objektuen arteko harremanaren garrantziaz hitz egingo dugu. Harien distantzia abiapuntu duen harremanaz, alegia. Nola sentituko dugu bestearen gorputza, txotxongiloaren gorputza, distantzia horretan?

Egunero eraikitzen den eta egunero bertan behera eroriko den mundu baten istorioa. Krisi bat dagoenean, nola eraikiko dugu berriz komunitatea? Nola sentituko dugu harremanez eta hariz ehundutako sare batean bizi garela?

Hariak gertatzen den guztiaren arteko konexio ikusezin bat sortzen dute, hariak gure senide, lagun eta bidelagunekin lotzen gaituzte. Hariak konexioa mantentzen dute. Distantzian ere, konexioa mantentzen dute.

Teaser: <https://www.youtube.com/watch?v=i1qj8xwqKNc&t=46s>

## **XIMURRAK**

**Gontzal Royuela (Euskal Herria)**

**22:30 - Gaztetxea**

Maskarak eta objektuak.

Aiton-amonek beti sukaldatzen dizkigute plater gozoak. Maitasuna adierazteko beraien modua izan ohi da. Baina, zerbaiten truke sukaldatzen dute? Ezta pentsatu ere! Maitasuna baldintzarik gabekoa da. Edo agian ez?

Testutik aldentuz, antzerki bisualago batera hurbiltzen den proposamen eszenikoa. Munduko edozein etxetan gerta litekeen istorioa.

Eszenatokian agertuko den aitona Luis deitzen da. Bere urtemuga da eta arroz esnea sukaldatuko die senideei. Arroz esnea oso postre identifikagarria baita euskal familietan, eta aitona-amona askok postre hau sukaldatuz adierazten dute maitasuna

## **IGANDEA, urriak 6**

**SIE7m**

**Ymedio Teatro (Andalucía)**

**Larunbata 5: 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara – Munibe Plaza**

**Igandea 6: 12:00etatik 14:00etara – Munibe Plaza**

15 minutuko emanaldiak. Dohanik, baina gonbidapena bertan jasotzea beharrezkoa da.

Publiko guztiei zuzendutako proposamen berritzailea. Kale antzerkia, aretoko antzerkia eta txotxongiloak uztartzen ditu. Ikuskizun bat baino gehiago ikuskizun bakar batean.

Gurpil gainean, eta zazpi metro koadro eskasetan, 15 ikuslek 15 minutuko emanaldi laburrak gozatuko dituzte.

Antzerki berezia, zalantzarik gabe. Espazio eszeniko txikia, eta oso zaindua, amets handienak gortzeko gai dena.

Eguneroko objektuen manipulazioa abiapuntua duten sketch barregarriak. Istorio hunkigarriak. Magia.

Teaser: <https://www.youtube.com/watch?v=riPLUVEXA3E&t=74s>

### **MUSIKA TRESNAK. Tailerra**

**Xavi Lozano (Catalunya)**

**12:00 – Aroztegi Aretoa**

Parte-hartzaileek instrumentu propio bat sortuko dute bertan emango zaizkien materialekin. Zazpi urtetik gorakoentzat. Dohainik, izena eman behar da ondorengo telefono zenbakian: 670 224 209.

## **EROS**

**Ixo Teatro (Euskal Herria)**

**20:00 – Seminarixoa**

Bi pertsonen bikote-harreman bati hasiera ematen dioten istorio horietakoa dugu hau. Biak sentitzen dute elkar gustuko ez izatearen beldurra, biak kikiltzen dira egia mingarriei aurre egiteko garaian, eta biak dute bestearen aurrean zaugarri azaltzeko lotsa.

Horrexegatik MASKARATZEN DIRA. Hala, bi maitemindu maskaratuen istorioa da hau. Eros eta bere maskarak.

Ikuskizun honen bitartez maitasuna zaintzeko bidean agertzen diren beldurren eta zailtasunen inguruan hitz egin nahi da, hitzik erabili gabe.

<https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/eitb-kultura/bideoak/osoak/9513842/bideoa-ixo-teatroaren-lehen-ekoizpena-eros/>

Halaber, Mostra guztian zehar, **AUTOMATAK erakusketa** egongo da ikusgai **Laboratorium-ean**: <https://www.laboratorium.eus/eus/erakusketa/automatas-mecanismos-magicos>

**Argazkiak** deskargatzeko lotura: [HAU](#)

### **Informazio gehiago**

Teresa Sala

[teresakomunikazioa@gmail.com](mailto:teresakomunikazioa@gmail.com) / 650 038 731